



**Lanuzteen iragarpena EHUko azpifinantzaketa dela eta
Eusko Jaurlaritza: bermatu beharrezko finantzaketa unibertsitate publikoari!
Legebiltzarreko alderdi politikoak: irmo defendatu EHU!**

Eusko Legebiltzarrean 2026ko EAEko aurrekontuak eztabaidatzen ari diren aste hauetan ezinbestekoa da berriro ere unibertsitate publikoaren azpifinantzaketa agerian jartzea. Izan ere, 2026rako EHUra bideratutako finantzaketa zertxobait igotzea aurreikusten bada ere, EHUko beharrak betetzetik oso urrun egoten jarraituko du, baita USLOk helburu moduan markatutako BPGren % 1etik ere. Atzo, EHUko Klaustroaren aurretik, LAB, STEILAS, ELA eta CGT/LKN sindikatuok EHUK pairatzen duen azpifinantzaketa salatu genuen. Ondoren, helburu berberarekin EHUko komunitatea osatzen duten kolektibo ezberdinetako kideek aurkeztutako adierazpena onartu zuen Klaustroak. Bertan, finantzaketa urriagatik EHUK esparru askotan dituen arazoak deskribatzen dira, eta, gabezia horiei erantzuna eman eta unibertsitate publikoak euskal jendarteari eskaini behar dion zerbitzu publikoa ahalik eta modu eraginkorrenean garatu ahal izateko, Eusko Jaurlaritzari EHUrekiko finantzaketa nabarmen handitzea eskatzen zaio.

Unibertsitate publikoarekiko utzikeria interesatua dagoela berretsi behar dugu, EHUK dituen gabezi endemikoei aurre egitea ahalbidetzen ez duena

EHUko irakasle-ikertzaileon oinarritzko soldatak bigarren hezkuntzako irakasleen oinarritzko soldatak baino baxuagoak dira, eta kolektibo honek gainera, azken urteetan galera nabarmena jasan du erosahalmenean; 2008tik hona KPIa % 46,6 igo den arren, irakasle agregatu eta unibertsitate titularren soldatek % 24,3ko galera izan dute ordudanik, eta horri, 2006an sortutako osagarriak gaur egun oraindik izoztuta mantentzen direla gehitu behar zaio.

Gainera, prekarietate egoera lazgarriak ditugu oraindik. Ordezko irakasleak arduraldi osoan kontratatatu ahal izateko bidea topatu bada ere, arduraldi partzialean jarduten duten irakasleek 400-800 € kobratzen jarraitzeaz gain, ez zaizkie aitortzen beraien jardunerako ezinbestekoak diren eta egiten dituzten hainbat lan. Horrek guztiak ez du lanbide hau interesgarria egiten, eta, gero eta irakasle lanpostu gehiago geratzen dira hutsik; horrek epe ertainean sail batzuetan irakasle nahikoa ez egotea ekarri dezake.

Teknikariak eta Kudeaketako eta Administrazio eta Zerbitzuetako Langileen (TEKAZELen) erosahalmenaren kasuan berriz, %18,2 galera jasan du azken 15 urteetan. Gainera, zerbitzu edota unitate askok langile gehiago behar dituztenez, gero eta zailtasun gehiago dago ordezkapenak betetzeko – gogoratu, IRI/TEKAZEL ratioa Europako beste herrialdeetan 2koa den bitartean, EHUn 2,76koa dela – eta horri guztiari, ordainsari-maila baxueneko lanpostuak berrikustea premiazko kontua dela gehitu behar zaio. TEKAZELen lana irakaskuntza, ikerketa eta gainerako aktibitateak era egokian garatzeko ezinbestekoa da, eta horrexegatik da garrantzitsua kolektibo honi ere soldata- eta lan-baldintza duinak bermatzea.

Unibertsitate publikoak euskal jendartearen formazioa, ikerketa edota ezagutzaren transferentziaren beharrei erantzun ahal izateko, lan-baldintza duinak eta plantilla egokia izatea, promozionatzeko eskubidea bermatzea edota langileak zaintzea ezinbestekoak dira.



Era berean, errektoretza taldeari EHUrako beharrezkoa den finantzaketa lortzeko jarrera irmoa exijitzen diogu. EHuko zuzendaritzaren erantzukizuna baita Eusko Jaurlaritzaren aurrean, jendartearen zerbitzura dagoen unibertsitate publikoaren beharrei erantzuten dien finantzazioa kemenez defendatzea.

Jaurlaritzak EHURA bideratzen duen dirua gutxiegi da oraindik, eta, Unibertsitate Sistema Lege Organikoak markatzen duenetik urruti dago. Gainera, Unibertsitate eta Berrikuntza sailburuak egindako adierazpen batzuen arabera ez dago legeak esaten duen horretara gerturatzeko asmorik. Europako hainbat estatuetan unibertsitate publikoen finantzaketak BPGren %1a gainditzen duen bitartean, ardura hori dutenak kontzienteki ari dira gurean oraina eta etorkizuna kolokan jartzen.

Aldi berean, hezkuntza unibertsitarioaren eredu elitista sustatuz, alfonbra gorria jartzen die Jaurlaritzak unibertsitate pribatuei. EHuko langileen ahaleginak dira guztion itsasontzi indartsua izan beharko litzatekeen hau ez hondoratzea lortzen dutenak. Izan ere, unibertsitate pribatuen flota gero eta anitzagoa izatearen erantzule zuzenak dira instituzioak; EHUri ez bezala, azken hauei – zuzenean edota ez zuzenean – finantzatzeko erraztasun guztiak ematen baitizkiete

Horregatik guztiagatik, LAB, STEILAS, ELA eta CGT/LKN sindikatuok beste urrats bat emango dugu. Hala, alderdi politiko guztiei, euskal jendarteak behar duen unibertsitate publikoa defendatu eta beharrezkoa duen finantzaketa bermatzea exijitzeko mobilizazioak deituko ditugu. Eskaera hau, EHU indartzeko edo ahultzeko abagunea duen Eusko Jaurlaritzari eta bereziki Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza sailburuari egiten diogu. Horretarako, abenduaren lehenengo astean, campus guztietan ordubeteko lanuzte eta kontzentrazioak egingo ditugula iragarri nahi dugu. Abenduaren 1ean Leioan, 2an Donostian, 3an Gasteizen eta 4an Eusko Jaurlaritzaren ordezkartzearen aurrean, Bilbon, egingo ditugu lanuzteak 11:00etatik 12:00etara, eta, kontzentrazioak 11:15etan izango dira. EHuko kideok badugu eskaera hau ozen adierazteko garaia!

Unibertsitate publikoaren defentsan, EHUrako beharrezko finantzaketa bermatu!

LAB – STEILAS – ELA – CGT-LKN

Bilbon, 2025eko azaroaren 21ean



Anuncio de paros por la infrafinanciación de la EHU
Gobierno Vasco: ¡garantiza la financiación necesaria para la universidad pública!
Partidos políticos parlamentarios: ¡Defended con firmeza la EHU!

En estas semanas en las que se debaten los presupuestos de la CAV de 2026 en el Parlamento Vasco es imprescindible volver a poner de manifiesto la infrafinanciación de la universidad pública. De hecho, aunque para 2026 se prevé un ligero aumento de la financiación destinada a la EHU, seguirá estando muy lejos de cubrir sus necesidades y de llegar al 1% del PIB marcado como objetivo por la LOSU. Ayer, LAB, STEILAS, ELA y CGT/LKN, a la entrada del Claustro de la EHU, denunciemos la infrafinanciación que sufre la EHU. Con el mismo objetivo, el Claustro aprobó en la sesión de ayer una declaración presentada por miembros de los diferentes colectivos de la comunidad de la EHU. En ella se describen los problemas que, en muchos ámbitos, tiene la EHU por su escasa financiación y se insta al Gobierno Vasco a aumentar sustancialmente la financiación de la EHU, para dar respuesta a esas carencias y poder desarrollar de la manera más eficiente posible el servicio público que la universidad pública debe ofrecer a la sociedad vasca.

Volvemos a afirmar que hay una dejadez intencionada hacia la universidad pública que no permite hacer frente a las carencias endémicas que padece la EHU.

Los salarios del personal docente e investigador (PDI) que empieza a trabajar en la EHU son inferiores a los salarios del profesorado novel en secundaria y la pérdida de poder adquisitivo ha sido muy evidente. Por aportar un dato, desde 2008 los salarios del profesorado agregado y titular de universidad han sufrido una pérdida del 24,3%. A ello hay que añadir que se mantienen congelados los complementos creados en 2006 para complementar los salarios, cuando el incremento del IPC ha sido el 46,6% desde ese año.

Además, se mantienen situaciones insostenibles de precariedad. A pesar de que se ha encontrado la vía para poder contratar profesorado sustituto a tiempo completo, el profesorado a dedicación parcial sigue cobrando entre 400 y 800 euros, sin tener reconocidas algunas de las actividades imprescindibles que realizan. Al menos desde el punto de vista económico, la carrera de fondo para ser personal docente e investigador universitario no hace atractiva esta profesión y en algunas áreas de conocimiento cada vez se están quedando vacantes más plazas docentes de nueva creación. Esto tendrá graves consecuencias a medio y largo plazo, ya que en algunos departamentos de la universidad pública no habrá suficiente profesorado.

En el caso del Personal Técnico, de Gestión y de Administración y Servicios (PTGAS), la pérdida de poder adquisitivo ocurrida en los últimos 15 años ha sido del 18,2%. Además, debido a que muchos servicios y/o unidades necesitan más personal, cada vez hay más dificultades para cubrir las sustituciones. Los puestos de trabajo con menor nivel retributivo deben ser revisados garantizando unas condiciones salariales dignas y acordes con el coste real de la vida. Para el adecuado desarrollo de la docencia, investigación y demás actividades es imprescindible el trabajo del PTGAS. Sin embargo, mientras que en otros países europeos la ratio PDI / PTGAS es de 2, en la EHU es de 2,76.

Para que la universidad pública pueda responder a las necesidades de formación, investigación y/o transferencia de conocimiento de la sociedad vasca es necesario



disponer de plantilla suficiente, garantizar el derecho a la promoción, disponer de unas condiciones laborales dignas y cuidar a las y los trabajadores.

Asimismo, exigimos al equipo rectoral que mantenga una actitud firme para conseguir la financiación necesaria para la EHU. Es responsabilidad de la dirección de la EHU defender con determinación ante el Gobierno Vasco una financiación que responda a las necesidades de una universidad pública al servicio de la sociedad.

De hecho, la financiación que destina el Gobierno Vasco sigue siendo muy baja, muy lejos del 1% del PIB que marca la Ley Orgánica del Sistema Universitario para 2031. Lo peor es que el consejero de Ciencia, Universidades e Innovación, en declaraciones realizadas en algunos medios, deja claro que no tienen ninguna intención de acercarse a esa cifra. Mientras en muchos Estados europeos la financiación de las universidades públicas supera el 1% del PIB, los encargados de financiar la EHU están conscientemente comprometiendo su presente y futuro.

Al mismo tiempo, el Gobierno Vasco pone la alfombra roja a las universidades privadas promoviendo un modelo elitista de educación universitaria. La EHU, que debería ser un barco fuerte para todas y todos, no se hunde por el esfuerzo de su personal, mientras la flota de universidades privadas es cada vez más diversa y potente, con todas las facilidades desde las instituciones y financiada directa o indirectamente con dinero público.

Por todo ello, en estos momentos en que se están definiendo los presupuestos, los sindicatos LAB, STEILAS, ELA y CGT/LKN daremos un paso más en las movilizaciones para exigir a todos los partidos políticos y, en especial, al Gobierno Vasco y al consejero de Ciencia, Universidades e Innovación, quienes tienen la decisión de fortalecer o debilitar la EHU, que defiendan la universidad pública que necesita la sociedad vasca frente al modelo privatizador y neoliberal. Anunciamos paros y concentraciones en cada campus durante la primera semana de diciembre, para que la comunidad universitaria de la EHU podamos expresar en voz alta nuestras denuncias y reivindicaciones. Los paros se realizarán entre las 11:00 y las 12:00 horas el 1 de diciembre en Leioa, el 2 en Donostia, el 3 en Gasteiz y el 4 frente a la delegación del Gobierno Vasco en Bilbao, las concentraciones a las 11:15. ¡Es momento de que la comunidad universitaria de la EHU lo expresemos alto y claro!

En defensa de la universidad pública, ¡garantizad la financiación necesaria para la EHU!

LAB – STEILAS – ELA – CGT-LKN

Bilbon, 2025eko azaroaren 21ean